

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5248

AGINDUA, 2022ko azaroaren 16koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuan araututako laguntza eta dirulaguntzen 2022rako deialdia egiten duena. Dekretu horren bidez arautzen dira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak. Akordio horiek Europar Batasunak finantzatzen ditu, hein batean, Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

I

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 11.1.a) artikulua ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da Estatuko ingurumen- eta ekologia-gaietan ezarritako oinarriko legeria garatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean betearaztea.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioeko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 8. artikulua –zehazki, s), u) eta w) apartatuen arabera, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari dagozkio honako egiteko eta jardun-arlo hauek: ingurumena eta klima-aldaketaren aurkako borroka; natura-ondarearen kontserbazioa; baliabide naturalak antolatzea eta natura kontserbatzea.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 22.2.o) artikulua arabera, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari dagokio Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legean eta hura garatzeko araudian aurreikusitako zehaztapenak betetzeko behar diren ekintzak sustatu eta kontrolatzea.

Otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 22.2.o) artikuluari jarraikiz, Urdaibai Biosfera Erreserbako Zerbitzuak –funtzionalki eta hierarkikoki Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren mende dagoenak– uztailaren 6ko 5/1989 Legean eta hura garatzen duen araudian aurreikusitako zehaztapenak betetzeko beharrezkoak diren ekintzak sustatu eta kontrolatuko ditu.

Nola Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza hala Urdaibai Biosfera Erreserbako Zerbitzua Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren egituran –otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 2. artikulua zehaztutakoan– sartzeko dira.

Bestalde, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen azken xedapenetatik lehenak lurralde historikoei esleitzen die erakunde komunek naturagune babestuak (Urdaibaiko Biosfera Erreserba izan ezik) administratzeko legeria betearazteko eginkizuna. Lege horrek azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c) artikulua –3. zenbakia – aldatzen du (27/1983 Legea, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzkoa).

II

Biosferaren Erreserbak UNESCOren MaB Programaren barruan aitortzen dira halakotzat. Zehazki, honako helburu hau duten lurraldeak dira: biodibertsitatearen eta aniztasun kulturalaren kontserbazioa eta garapen ekonomikoa eta soziala harmonizatzea, pertsonen naturarekin duten harremanaren bidez. Ekologikoki adierazgarriak edo balio berezikoak diren zonetan ezartzen dira, lehorreko, kostaldeko eta itsasoko inguruneetan, non funtsezkoak baitira giza populazioa eta bertako jarduerak kontserbazioarekin integratzea.

Urdaibai eskualdeari Biosfera Erreserbaren izaera ematen dion araua Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legea da. Uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 1. artikulua arabera, araubide juridiko berezia ematen zaio Urdaibaiko Biosfera Erreserbari, eta araubide juridiko horren helburua zera da, gea, flora, fauna, paisaia, urak eta atmosfera babestea eta lehengoratzea, eta, azken batean, Urdaibaiko ekosistema guztiak babestea, natura, zientzia, hezkuntza, kultura eta, aisiarekin lotuta duten interesa eta interes sozioekonomikoa dela eta.

Uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 15.1 artikuluan hau dago jasota: 1. artikulua xedea hezurmamitzeko, Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoak Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren Erabilpenerako eta kudeaketarako egitama idatziko du.

Une honetan indarrean dagoen erabilera eta kudeaketa zuzentzeko plana Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren Erabilpenerako eta kudeaketarako egitama onesteko irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren bidez onetsi zen.

Irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 1.3.1 artikulua ezartzen duenez, Urdaibaiko Biosfera Erreserba lagungarria izango da NBEk onartutako 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarri-rako Helburuak –GJHak– lortzeko; izan ere, 15. GJHak basoen kudeaketa jasangarriari eustera behartzen ditu administrazio publikoak.

Ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuak (zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak) eta Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuaren agindu honek arautzen dituzten konpentsatzeko laguntzak eta zaintza-dirulaguntzak funtsezko baliabideak dira ingurumena lehengoratzeko jarduketak –irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.3.2.1 artikulua «lehetasunezkoztat» jotzen dituenak– aplikatzeko: espezie exotiko inbaditzaileak ezabatzea eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoruen kategoria eta azpikategoria bakoitzaren ingurumen-ezaugarriekin bateragarriak diren espezieak berriro sartzea edo sustatzea.

Ildo horretan, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoruen ingurumena lehengoratzea bultzatze aldera, 4.4.3.21 artikulua –13. apartatua– agindu bat biltzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarentzat: laguntza ekonomikoen sistema bat onartzea erregelamendu bidez. Sistema horren jomuga baso-ustategien titularrei konpentsazioa ematea izango litzateke, baso-ustiapenerako edo -lehengoratzeko birpopulaketan espezie aloktonoak hazkunde ertain edo luzeko hostozabalengatik aldatzearen ondorioz errentagarritasun finantzarioak izandako galeragatik. Ez dira inolaz ere konpentsatuko Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legeak edo Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren Erabilpenerako eta kudeaketarako egitama onartzen duen abuztuaren 3ko 242/1993 Dekretuak ezarria urratuz egin diren baso-landaketak.

Agindu honen bidez garatu da araua: 83/2019 Dekretua, ekainaren 4koa, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak.

Ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 2. artikuluan bi lerro zehazten dira: konpentsatzeko laguntzak eta zaintza-dirulaguntzak. Ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 13. artikuluan Agindu honen gutxieneko edukia jasotzen da.

Bestalde, Urdaibaiko Biosfera Erreserban Kontserbazio Bereziko hiru Eremu –Urdaibaiko Ibai Sarea (ES2130006), Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak (ES2130007) eta Urdaibaiko Artadi Kantauriarrak (ES2130008)– eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu bat – Urdaibaiko Itsasadarra (ES0000144)– daude, Natura 2000 Sarean sartuak denak.

Naturagune Babestu horiei dagokienez, Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren –habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoaren– 6.3 artikulua honako agindu hau ezartzen du: plan edo proiektuek leku horietan eragin nabarmena izateko arriskua dakarten kasuan, horiek tokian izango dituzten ondorioen ebaluazio egokia egin beharko da, kontserbazio-helburuak kontuan hartuta betiere.

Azkenik, laguntzen eta dirulaguntzen deialdi honen ebazpenean, horiek lurzoruen baso-erabilerarekin lotura materiala dutenez, Bizkaiko Lurralde Historikoko erakundeek onartutako bi arau hauetako aginduak aplikatuko ditu Balorazio Epaimahaiak: 3/1994 Foru Araua, ekainaren 2koa, Mendiei eta Babespeko Naturaguneen Administrazioari buruzkoa; eta 11/1997 Foru Araua, urriaren 14koa, Euskal Herriko basoko espeziei buruzko Araubide Zehatzari buruzkoa.

III

Agindu honen xede diren konpentsatzeko laguntzen eta zaintza-dirulaguntzen bidez, irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.3.21 artikuluan adierazitako hiru helburuak bete nahi dira: baso-masek irautea, baso-erabileren etekin mantendua eta basoen askotariko erabilera. Ildo horretan, emango diren laguntzak eta dirulaguntzak baso-baliabideen aprobetxamendu iraunkorra gauzatzera, natura kontserbatzera, arro hidrografikoak eta lurzoru babestera eta basoen funtzio publikoa indartzera bideratuta daude.

Era berean, laguntzen eta dirulaguntzen deialdi honen bidez, bete egiten da Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 5.2.c) artikulua administrazio publikoei ezartzen dien agindua: neurri fiskalen eta beste pizgarri ekonomiko batzuen erabilpena sustatzea natura kontserbatzeko ekimen pribatuak gauzatzeko, eta biodibertsitatearen kontserbazioan eragin negatiboa duten eta natura-ondarearen erabilpen jasangarria sustatzen duten ekimenak sustatzeko.

IV

Deialdi hau Europar Batasuneko funtsekin batera finantzatzen da; zehazki, zaintza-dirulaguntzen 2. lerroa Next Generation EU funtsekin finantzatzen da oso-osorik. Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legearen 26.–34. artikuluetan arautzen da Next Generation EU Suspertze Planarekin lotutako funtsen kudeaketa. Horrenbestez, abenduaren 23ko 11/2021 Legearen 34. artikulua aplikatuz, Eusko Jaurlaritzak hiru hilean behin emango dio Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari laguntza eta dirulaguntzen deialdi honen ondoriozko kredituen gauzatzeko-mailaren eta helburu espezifikoen berri.

Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduaren 3.2 artikulua (EE) (*minimis* laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa da erregelamendu hori) ezartzen duenez, laguntza publikoak *minimistzat* jotzeko enpresa jakin bati estatu kide batek emango dizkion laguntzen kopuru osoa ez da 200.000 euro baino gehiagokoa izango, hiru zergaldiko edozein alditan.

Agindu honen 2. artikuluko zenbatekoak kontuan hartuta, *minimis* gisa emango diren dirulaguntzak eta laguntzak kontzeptualizatzeko aukera egongo da, eta 1407/2013 Erregelamenduaren 3.1 artikulua aplikatuz, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 108.3 artikuluan ezarritako jakinarazpen-betebeharretik salbuetsita egongo dira horiek.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua betez, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan –Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak 2021eko martxoaren 17an emandako Aginduaren bidez onartuan– zehazten dira (zehazki, 5.5.2.10 fitxan) laguntzen eta dirulaguntzen deialdi honen helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak.

Orobat, laguntzen eta dirulaguntzen deialdi honetan, kontuan hartuko dira horiek garatzeko genero-ikuspegia txertatzen duten jarduerak, eta estrategikotzat hartuko dira, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako irizpideen arabera.

COVID-19aren pandemiak sortutako kalte ekonomiko eta sozialak konpontzeko, Europako Batzordeak, Europako Parlamentuak eta EBko agintariek suspertze-plan bat adostu dute, krisitik ateratzeko bidean gidatzeko eta Europa moderno eta jasangarriago baterako oinarriak ezartzeko.

Europako Kontseiluak, 2020ko uztailaren 21ean, ikusita une historiko honetan ezohiko ahalegina egin behar zela eta planteamendu berritzaile bat behar zela Europar Batasunean konbergentzia, erresilientzia eta eraldaketa bultzatzeko, irismen handiko neurri sorta bat adostu zuen.

Akordio horren ondorioz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua –Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena– hartu zuen. Mekanismo hori da EB suspertzeko ezohiko neurrien ardatz nagusia, eta «Next Generation EU» funts europarrak arautzen dituen Suspertze eta Erresilientzia Tresnaren esparruan kokatzen da; koronabirusaren pandemiak eragindako kalte ekonomiko eta sozialak konpontzen lagunduko du aldi baterako baliabide horrek, eta COVID-19aren ondorengo Europa ekologikoagoa, digitalagoa, erresilienteagoa eta egungo eta etorkizuneko erronketara hobeto egokitua izan dadin lortzeko jomuga du.

Testuinguru horretan eman da abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko. Horren xedea da, behar diren xedapen orokorrek ezartzea, Europako funtsen bidez, bereziki Suspertzeko Tresnatik datozen funtsen bidez, finantzatu daitezkeen jardueren programazioa, aurrekontua, kudeaketa eta betearazpena errazteko. Suspertzeko Tresna Europako Kontseiluak onartu zuen 2020ko uztailaren 21ean, hazkunde ekonomiko eta enpleguaren sorrera bultzatzeko, SARS-CoV-2 pandemiak eragindako krisitik suspertu eta kalteak konpontzeko, eta egiturazko eraldatze-prozesua bultzatzeko, inbertsio publiko eta pribatua bultzatu eta ekoizpen-ehunari lagunduz, trantsizio ekologiko eta digital bikoitza bizkortuz, eta erresilientzia eta ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartu eta areagotuko dira, Europako merkatu bakarraren esparruan.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plan horrek hamar trakzio-politika edo politika eragile biltzen ditu, zuzeneko eragina izango dutenak sare ekonomiko eta soziala eraldatzeko gaitasun handiena duten ekoizpen-sektoreetan. Horien artean, bigarrena, «Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak», ekosistemen kontserbazio-egoera ona lortu behar dela ezartzen du, beharrezkoa denean horien lehengoratzeko ekologia gauzatu, baita biodibertsitatearen galera lehengoratu egin behar dela ere, baliabide naturalen erabilera iraunkorra bermatuz eta ekosistema-zerbitzuak zainduz eta hobetuz.

Trakzio-politika horretan, 4. osagaia sartzetik da: «Ekosistemak eta haien biodibertsitatea kontserbatzea eta lehengoratzeko». Osagai horrek 3 erreforma eta 4 inbertsio biltzen ditu. Zehazki, «Lurreko eta itsasoko biodibertsitatea kontserbatzea» izeneko 2. Inbertsioaren helburu nagusia zera da, arriskuan dauden espezieen kontserbazioa faboratzea, eremu babestuetan kudeaketarako eta erabilera publikorako azpiegiturretan inbertitzea, hezeguneak lehengoratzeko edo basa-espezieen nazioarteko merkataritza kontrolatzea, Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (CID) onartutako 69. helburua betetzeko. SEEParen ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren Proposamenarekin batera doan SEEParen Análisis dokumentuaren arabera, plan horrek trantsizio ekologikoari eta digitalari egiten dion ekarpena % 40ra igotzen da klimaren aldeko ekintzaren kasuan, eta % 0ra etiketatze digitalaren kasuan.

SEEParen ildo beretik, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak, 2021eko uztailaren 9ko Arloko Biltzarrean, lurralde-banaketa irizpide objektiboak eta Biosferaren Erreserbetan jarduketak finantzatzeko oinarri arautzaileak onetsi zituen.

Abenduaren 30eko 36/2020 Lege Errege Dekretua garatzeko, honako hauek onetsi dira: HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena, eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren ataletako neurrien mugari eta helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko jarraipena egiteko eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitatea-betearazpenaren jarraipena egiteko.

V

Azaldutako guztiagatik, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) eta otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena) ematen dizkidan eskumenak baliatuz; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta laguntzei eta dirulaguntzei aplikatzekoak zaizkien gainerako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Dirulaguntzen xedea eta lerroak.

1.– Agindu honen xedea zera da, konpentsatzeko laguntzetarako eta zaintza-dirulaguntzetarako deialdia egitea 2022ko ekitaldirako; testu honetan jasota dauden laguntza eta dirulaguntza horiek: 83/2019 Dekretua, ekainaren 4koa, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera

Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordio bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak.

2.– Agindu honen bidez deitzen diren laguntzak eta dirulaguntzak kategoria hauetan sailkatzen dira:

a) 1. lerroa– Konpentsatzeko laguntzak: Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren Erabilpenerako eta kudeaketarako egitamua onesteko irailaren 27ko 139/2016 Dekretuan baso-erabileretarako ezarritako mugek eragindako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko laguntzak.

b) 2. lerroa – Zaintza-dirulaguntzak: natura-ondarearen kontserbazio aktiborako jomuga izaki zaintza-akordio batean formalizatu diren jarduketak finantzatzeko dirulaguntzak. Balio Erantsiaren gaineko Zergari –BEZari– dagokion zenbatekoa ezingo da finantzatu.

Ildo honetan finantzatu beharreko jarduketak 2. inbertsioaren barruan daude: «Lurreko eta itsasoko biodibertsitatea kontserbatzea». Inbertsio hori «Itsasoko eta lehorreko ekosistemak eta horien biodibertsitatea kontserbatzea eta lehengoratzea» (C4.I2) izeneko 4. osagaiaren barruan dago, baita Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan ere, eta lagungarriak dira «Biodibertsitatea kontserbatzeko ekintzak» izeneko 069 helbururako. Helburu horrek 2026ko ekainean gutxienez 50.000 hektarea –biodibertsitatea kontserbatzeko jarduera eraginkorrez estaliak– lortzea aurreikusten du. Dirulaguntza jasotzeko, nolahi ere, Arloko Biltzarrean ezarritako tarteko zein amaierako mugarri eta helburuak bete, gauzatu eta egikaritu beharko dira.

Gainera, programa honen kontura finantzatutako jarduketek etiketa berdearen konpromisoa betetzen dela ziurtatu beharko dute (ez dute etiketa digitalik). Zehazki, esku hartzeko hurrengo eremuan kokatuta egon beharko dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren eta haren Egintza Eskuordetuen arabera (Taxonomia Erregelamendua): «050: Natura, biodibertsitatea, ondare eta baliabide naturalak, azpiegitura berdeak eta urdinak babes-tea», klima-helburuen % 40ko klima-koefizientearekin eta % 100eko ingurumen-koefizientearekin.

2. artikulua.– Aplikatu beharreko araudia.

1.– 2. lerroan aurreikusitako dirulaguntzak, ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuan, deialdi honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean xedatutakoaren arabera ez ezik, honako arau hauetan xedatutakoaren arabera ere zuzenduko dira:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

b) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.

c) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.

d) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarriak eta helburuak betetzen diren kontrolatzeko eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legearen V. kapitulua.

f) 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

g) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

h) 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren (38/2003, azaroaren 17koaren) Erregelamendua onartzen duena.

i) 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

j) 83/2019 Dekretua, ekainaren 4koa, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak.

2.– Halaber, 2. lerroan aurreikusitako dirulaguntzei honako hauek aplikatuko zaizkie:

a) Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko otsailaren 8koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa, argitaratu zena Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko martxoaren 4ko EHAA, 46. zenbakia).

b) Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko martxoaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko iruzurraren aurkako neurrien plana onartzen duena, argitaratu zena Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariak aipatu erabakia argitaratzeko emandako apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko apirilaren 13ko EHAA, 74. zk.).

3.– Era berean, entitate onuradunek nahitaez bete beharko dituzte laguntza ematen duen administrazioak, estatuko eta Europako gainerako agintari eskudunek xede horretarako ezarritako arauak, bai eta aipatu finantzaketa-iturrien arabera laguntza hauen onuradun izateagatik ezarritako betebeharrak ere.

3. artikulua.– Pertsona onuradunak.

Dekretu honen 3. artikuluan zehaztutako eta 4. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten pertsonak izan daitezke onuradun: 83/2019 Dekretua, ekainaren 4koa, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak.

4. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

1.– Ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 2. artikuluan (83/2019 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak) zehaztutako jarduketarako guztizko aurrekontu-zuzkidura berrehun eta berrogeita hamar mila eurokoa (250.000,00) izango da.

Berrehun eta berrogeita hamar mila (250.000,00) euroko zenbatekoa honela banakatzen da:

- a) 1. Lerroa: Konpentsatzeko laguntzak: ehun eta berrogeita hamar mila (150.000,00) euro.
- b) 2. Lerroa: Zaintza-dirulaguntzak: ehun mila (100.000,00) euro.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren baliabide propioen bidez finantzatzen da konpentsatzeko laguntzen 1. lerroaren aurrekontu-zuzkidura.

3.– Zaintza-dirulaguntzen 2. lerroan jasotako aurrekontu-zuzkidura oso-osorik dago finantzatuta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez. Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntza horiek izapidetzeari eta emateari abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako aplikatuko zaie (Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen), aplikatzekoa den gainerako araudiari kalterik egin gabe.

4.– Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik eratorritako funtsen banaketaren ondorioz sortutako kredituak funts propioekin hornitu ahalko dira, baldin eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin lotutako jarduketak eta proiektuak batera finantzatu edo osatzeko helburua badute.

5.– Ekitaldian zehar Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako ordainketa-kredituak zabaltzeko aukera egongo da. Kreditu-zabaltzeak Ekonomia eta Ogasun Sailak erabakitzen duen moduan finantzatuko dira. Horrez gain, Gobernu Kontseiluak ere egin ahal izango du zabaltze hori, kreditu orokorraren edo diruzaintzako gerakinen kontura.

6.– Ekonomia eta Ogasun Sailak konpromiso-kredituen egoera-orria gehitu dezake, kreditu berriak onartuz edo haien zenbatekoa handituz, eta gerorako konpromisoen egoera-orria ere gehitu dezake, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketak eta proiektuak finantzatzeko.

7.– Nola konpentsatzeko laguntzen lerroko hala zaintza-dirulaguntzen lerroko diruzko xedapenek, *minimis* izaera dutenez, ez dute Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 108.3 artikuluan ezarritako jakinarazpen-betebeharririk izango.

5. artikulua.– Eskabideak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabideak ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 8. artikuluan (83/2019 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak) ezarritakoari jarraikiz formalizatuko dira.

6. artikulua.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 5. artikuluan (83/2019 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak) zehaztutako erantzukizunpeko adierazpenarekin batera aurkeztu beharko dira eskabideak.

2.– Konpentsatzeko laguntzaren 1. lerroan, agindu honen 6. artikuluko 1. apartatuko erantzukizunpeko adierazpenaz gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Baso-ustiategi baten titulartasuna frogatzeko dokumentazioa.

b) Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak emandako mozketak-baimena.

c) Basoen Kudeaketa Iraunkorrerako Plana, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak onartua, hala badagokio.

3.– Zaintza-dirulaguntzen 2. lerroan, agindu honen 6. artikuluko 1. apartatuko erantzukizunpeko adierazpenaz gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Erakunde eskatzailea fundazio bat bada, estatutuen kopia bat aurkeztu beharko da.

b) Deskribapen-memoria, eduki honekin:

– Ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 2.2 artikuluan (83/2019 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioaren bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak) finkatutako baldintzak betetzen dituen zaintza-akordioa.

– Zaintza-akordioaren iraupena, diruz lagundutako jarduketaren helburuak, jarduketa-lekuaren planoa eta mugaketa, jarduketak gauzatzeko epeak eta egutegia, jarduketaren irismena eta garapena, eta jarduketaren guztizko aurrekontua, partiden arabera banakatuta.

c) Hala badagokio, udalaren hirigintza-lizentzia eta administrazio sektorialaren lizentzia.

d) Onuradunaren eta, hala badagokio, azpikontratisten benetako titulartasunaren identifikazioa. Identifikatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluan 6. puntuan xedatutakoa beteko da, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezartzen denari jarraikiz betiere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluari lotuta.

e) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren –SEEParen– zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoaren adierazpena, deialdiaren I. eranskineko 1. apartatuan jasotako formularioaren arabera.

f) «Kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioari («do not significant harm – DNSH» printzipioa) egokitzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 6. paragrafoan ezarritakoa-ren ildotik, deialdiaren I. eranskineko 2. atalean jasotako formularioaren arabera.

g) Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA), agindu honen I. eranskinaren 3. atalean ezarritakoaren arabera.

h) Datuen lagapenari eta tratamenduari buruzko aitopena, deialdiaren I. eranskineko 4. atalean jasotako formularioaren arabera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko jarduketak gauzatzeari dagokionez.

i) Eusko Jaurlaritzak onartutako Iruzuraren aurkako Neurrien Plana baldintzarik gabe eta inolako erreserbarik gabe onartzeko adierazpena (2022ko apirilaren 13ko EHAA, 74. zenbakian, argitaratua, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenari jarraikiz).

4.– Eskatzaileek eskubidea dute agindu honen 6. artikuluko 2.b) eta 3.c) apartatuetan aipatzen diren agiriak ez aurkezteko, baldin eta laguntzen eta dirulaguntzen deialdi honetako organo kudeatzaileak beste administrazio publiko batzuetatik elektronikoki eskuragarri daudenak beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoki batzuetan kontsultatuta agiri horiek jasotzearen aurka ez badaude.

7. artikulua.– Aurreikusitako jarduketak gauzatzeko epea.

1.– Konpentsatzeko laguntzen lerroan, diruz lagundutako jarduketak gauzatzeko epeak honako hauek dira:

a) Baso-proiektua ezabatzea: Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren Erabilpenerako eta kudeaketarako egitamuaren arabera baso-erabilera baimenduta ez duten lurzoruetan, baso-erabilera oro ezabatu beharko da, gehienez urtebeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

b) Ingurumen-lehengoratzera aldatzea: Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren Erabilpenerako eta kudeaketarako egitamuan Gune Gainkategorian sailkatuta dauden lurzoruetan, baso-proiektua aldatu beharko da, ziklo ertain edo luzeko espezie hostozabal autoktonoak jarritz, gehienez urtebeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

c) Baso-mota aldatzea: Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren Erabilpenerako eta kudeaketarako egitamuaren arabera baso-erabilera baimenduta duten lurzoruetan, baso-proiektua aldatu beharko da, ziklo ertaineko edo luzeko espezie hostozabal autoktonoak ezarritz, gehienez ere urtebeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.– Zaintza-dirulaguntzen 2. lerroan, laguntza eta dirulaguntzen deialdi honen bidez diruz lagundutako jarduketak 2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean hasi beharko dira. Jarduketak gauzatzeko epea urtebetekoa izango da, Ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zebaitzen hasita.

8. artikulua.– Esleitzeko irizpideak.

1.– Hauek dira konpentsatzeko laguntzen 1. lerroan aurkeztutako proiektuen puntuazio-irizpideak:

a) Lursailen kokapena. Gehienez ere 75 puntu (irizpide aplikagarrien % 75), eskala honen arabera:

i) Gune Gainkategorian sartutako lursailaren azalera-ehunekoa. Azalera-ehunekoa 75 puntuz biderkatuko da.

ii) Gunearen Babes Gainkategorian sartutako lursailaren azaleraren ehunekoa. Azalera-ehunekoa 50 puntuz biderkatuko da.

iii) Trantsizio Gainkategoriako Nekazaritza, Abelazkuntza eta Landazabaleko Intereseko Eremuko Nekazaritza Balio Handiko Zonan bildutako lurzoru-azaleraren ehunekoa. Azalera-ehunekoa 50 puntuz biderkatuko da.

b) Proposatutako ekintzek natura-ondarea kontserbatzeko duten ahalmena. Gehienez ere 15 puntu (irizpide aplikagarrien % 15), eskala honen arabera:

i) 2016ko abenduaren 31 baino lehen egindako mozketak (15 puntu).

ii) 2017ko abenduaren 31 baino lehen egindako mozketak (10 puntu).

iii) 2018ko abenduaren 31 baino lehen egindako mozketak (5 puntu).

iv) 2018ko abenduaren 31tik aurrera egindako mozketak (0 puntu).

c) Baso-kudeaketa jasangarrirako plan tekniko bati jarraikiz mozketak baten eraginpean egon diren lursailak. Gehienez 10 puntu (irizpide aplikagarrien % 10).

d) Berdinketarik egonez gero, lurzoruko kalifikazio desberdinetan azalera handiena duten partzelak lehenetsiko dira; hala, eta irizpide gehigarri gisa, Gune Gainkategorian lursail-azalera handiagoa izatearen arabera antolatuko dira, eta irizpide gehigarri gisa, berriz, Gunearen Babes Gainkategorian lursail-azalera handiagoa izatea.

2.– Hauek dira zaintza-dirulaguntzen 2. lerroan aurkeztutako proiektuen puntuazio-irizpideak:

a) Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren Erabilpenerako eta kudeaketarako egitamuarekiko bateragarritasunari dagokionez: Gehienez 50 puntu (irizpide aplikagarrien % 50).

i) Gune Gainkategorian sartutako lursailak (50 puntu).

ii) Gunearen Babes Gainkategorian sartutako lursailak (40 puntu).

iii) Trantsizio Gainkategorian sartuta egonik eta baso-erabilera izateko aukera ematen duten lursailak (30 puntu).

iv) Jardun-arlo baten gainean hainbat kalifikazio egiten baldin badira, puntu gehien duena balioetsiko da.

b) Proposaturiko ekintzek natura-ondarea kontserbatzeko duten ahalmena. Gehienez 30 puntu (irizpide aplikagarrien % 30).

i) Egitasmoaren kalitate teknikoa eta bideragarritasuna, ondare naturala eta paisaia kontserbatu, leheneratu eta hobetzeari egiten dion ekarpena arabera. Gehienez, 10 puntu.

ii) Ikerketa- eta jarraipen-planaren kalitate teknikoa eta proiektzioa. Gehienez, 10 puntu.

iii) Komunikazio- eta zabaltze-ekintzek gizartean izan dezaketen eragina. Gehienez, 10 puntu.

c) Lurraldearen zaintza-akordioaren denbora-esparrua: 2 puntu emango dira akordioak irauten duen urte bakoitzeko, eta gehienez 20 puntu, nolana ere (irizpide aplikagarrien % 20).

9. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa eta ordaintzeko modua.

1.– Konpentsatzeko laguntzen lerroan emandako laguntzen zenbatekoa Agindu honen II. eranskinean finkatutako metodologiaren bidez kalkulatzen da.

2.– Zaintza-dirulaguntzen lerroan esleitutako dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, agindu honen III. eranskinean finkatutako metodologia erabiliko da.

3.– Ordainketa ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 11. artikuluan (83/2019 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioaren bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak) ezarritakoari jarraikiz gauzatuko da.

10. artikulua.– Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Hau izango da aplikatzekoa: 83/2019 Dekretua, ekainaren 4koa, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioaren bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak.

11. artikulua.– Pertsona onuradunen betebeharrak.

1.– Ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 6. artikuluan (83/2019 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak) ezarritako obligazioak bete beharko dituzte pertsona onuradunek.

2.– 2. dirulaguntza-lerroaren onuradunek, gainera, Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa finantzatzeari buruz Europak eta Estatuak ezarritako betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

a) DNSH – Do Not Significant Harm Printzipioa (ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitalerako kondizioak erabat betetzen direla bermatzea, honako hauek ezarritakoari jarraikiz: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana; Kontseiluaren Gauzatze Erabakia, Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa (Council Implementing Decision – CID); Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendua, 2021eko otsailaren 12koa, eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikulua (aginduak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eta hura garatzeko araudia eratzen ditu, proiektuaren diseinuaren eta exekuzioaren fase guztietan eta jarduera bakoitzerako banaka).

Finantzatu beharreko jarduketek DNSH (do no significant harm) printzipioa betetzen dutela justifikatzeko, autoebaluazio-inprimakia aurkeztu beharko da eskabidearekin batera, IV. eranskinari jarraikiz.

Nolanahi ere, erakunde onuradunek printzipio hori betetzen dela egiaztatzeko mekanismoak eta ezarpena ziurtatzeko neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituzte, eta horren berri emango dute dirulaguntza justifikatzeko memorian.

b) Bermatzea ez dagoela interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik, eta baldintzarik eta erreparorik gabe onartzea Eusko Jaurlaritzak onartutako Iruzuraren aurkako Neurrien Plana –kontratuaren kondizio espezifikoaren xxx klausulan jasotakoa. Hala, horren xedapenen mende egongo da erabat, eta guztiz beteko ditu autonomia-erkidegoko, estatuko eta Europako araudiak, bai eta Europar Batasuneko erakundeek beren finantza-interesak babesteari buruz hartzen dituzten erabakiak ere.

c) Onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso dituela estatuko edo nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikotatik, baina kostu beraren gaineko finantzaketa bikoitzik izan gabe.

d) Europako Batzordeak, Iruzuraren Aurkako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak onartzea. Horretarako, organo horiei dirulaguntzari buruz eskatutako informazio guztirako sarbidea emango zaie, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

e) Batzordeari, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari Finantza Erregelamenduko 129. artikuluko 1. apartatuak aitortzen dizkien eskubideak egikaritzeko baimena ematea, eta Suspertze eta Erresilientzia Planaren sartutako erreformak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako ordaindutako funtsen azken hartzaile guztiak behartzea, edo aplikazioan esku hartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiak, eta berariaz baimena ematea Batzordeari, Iruzuraren aurka Borrokatzeko

Europako Bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari Finantza Erregelamenduko 129. artikuluko 1. apartatuak aitortzen dizkien eskubideak egikaritzeko eta antzeko betebeharrak ezartzeko funtsen azken hartzaile guztiei.

f) Jasotako funtsen aplikazioaren egiaztagiriak zaintzea eta gordetzea bost urtez edo, finantzaketaren zenbatekoa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada, hiru urtez, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketak egiteko aukera emate aldera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

g) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema zehazten duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikulua ezarritako komunikazio-betebeharrak betetzea. Bereziki, inbertsioek garatzeko jardueri buruzko informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio-kartelak, plakak, argitalpen inprimatu eta elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, web-orriak, prentsako iragarki eta txertaketak, ziurtagiriak, etab.), honako logotipoak sartu beharko dira: a) Europar Batasunaren ikurra; b) Batasunaren ikurrarekin batera, «Europar Batasunak Next Generation EUk finantzatua» testua sartuko da; c) 821/2014 Gauzatze Erregelamenduaren II. eranskinean ezarritako arau grafiko eta kolore normalizatuak hartuko dira kontuan.

h) Beren identifikazio-datuak datu-base bakarrean sartzeari, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzten duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

12. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

1.– Laguntzen eta dirulaguntzen onuradunek egun hauek baino lehen justifikatu beharko dute diruz lagundutako jarduketak:

a) Konpentsatzeko laguntzen 1. lerroan:

i) Baso-proiektua ezabatzea: ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 11.5 artikuluan (83/2019 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak) ezarritako epearen barnean justifikatu beharko dira gauzatutako jarduketak.

ii) Ingurumen-lehengoratzera aldatzea: ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 11.3. artikuluan (83/2019 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak) ezarritako epearen barnean justifikatu beharko dira gauzatutako jarduketak.

iii) Baso-mota aldatzea: ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 11.3 artikuluan (83/2019 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak) ezarritako epearen barnean justifikatu beharko dira gauzatutako jarduketak.

b) Zaintza-dirulaguntzen 2. lerroan, ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 11.4 artikuluan (83/2019 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun

finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak) ezarritako epearen barnean justifikatu beharko dira gauzatutako jarduketak.

2.– Laguntzen eta dirulaguntzen onuradunek honako agiri hauek aurkeztuko dituzte:

a) Diruz lagundutako ekintzak egin direla azaltzen duen memoria, konpentsatzeko laguntzen lerroari edo zaintza-dirulaguntzen lerroari dagokiona.

b) Diruz lagundutako gastua benetan egin dela egiaztatzen duten fakturak edo ordainagiriak.

3.– Zaintza-dirulaguntzen 2. lerroari dagozkion deskribapen-memoretan honako hauek egiaztatatu beharko dira:

a) Egindako jarduketek zenbat hektarea estaltzen dituzten.

b) Diruz lagundutako jarduketak ekosistemen urrakortasuna murrizten duela, honako neurri hauen guztien edo batzuen bidez:

i) Karbono-*stock*ak handitzea.

ii) Osasun-maila egokiak mantentzea.

iii) Biodibertsitatea areagotzea.

iv) Nekazaritza-sistemetan zuhaitz-estalkia handitzea.

v) Baso-sistemetan landare-estalkia handitzea.

vi) Baso-sistemen mendeko populazioak egokitzeko duen gaitasuna indartzea.

c) Proiektuari lotutako isuriak (makinak, ongarririk, pestizidak, etab.) bahitutako karbonoa baino askoz ere txikiagoak direla.

d) DNSH printzipioa betetzen direla, dagokion autoebaluazioa aurkeztuta (IV. eranskina).

4.– Agindu honen 8. artikuluko 2. paragrafoan bildutako dokumentazioa honako bitarteko hauek erabiliz aurkeztu ahalko da:

a) Laguntzaren edo dirulaguntzaren onuraduna pertsona fisikoa denean, edozein unetan aukeratu ahalko du bitarteko elektronikoen bidez komunikatu nahi ote duen.

Onuradunak, pertsona fisikoa bada, Agindu honetako 8. artikuluko 3. paragrafoko b) letran deskribatutako bitarteko elektronikoen bidez ezarri ahalko du harremana, edo, bestela, aipatutako dokumentazioa aurkezteko aukera ere izango du Urdaibai Biosfera Erreserbako Zerbitzuaren bulegoan (San Bartolome auzoa, 34-36; 48350 Busturia, Bizkaia).

Pertsona fisikoak noiznahi aldatu ahalko du aukeratutako bitartekoa.

b) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan jasotako subjektua bada, bitarteko elektronikoen erabiliz aurkeztu beharko du dokumentazioa Laguntzaren edo dirulaguntzaren onuradunak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen «Nire karpeta» apartatuaren bidez (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

13. artikulua.– Balorazio-epaimahaia.

1.– Hauek izango dira Balorazio Epaimahaiko kide: Adolfo Uriarte Villalba, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria, Balorazio Epaimahaiko lehendakari gisa; Nicolás García-Borreguero Uribe, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-kontserbatzailea; eta Xabier Albizu Zabala, Urdaibai Biosfera Erreserbako Zerbitzuari atxikitako teknikaria.

2.– Balorazio Epaimahaiak ebazpen-proposamena egingo dio Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordeari. Proposamen hori Agindu honen 6. artikuluan adierazitako esleipen-irizpideei eta aurrekontu-mugei egokituko zaie, eta honakoak bilduko ditu, arrazoiak adierazita: dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak; dirulaguntzen zenbatekoa; dirulaguntza jasoko ez duten proiektuak; ukatutako eskaerak, ukatzeko arrazoiekin batera; eta ebatzi beharreko beste edozein inguruabar.

14. artikulua.– Ebazpena.

Prozeduraren ebazpena ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 16. artikuluan (83/2019 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak) ezarritakoari jarraikiz eman eta jakinaraziko da.

15. artikulua.– DNSH printzipioa ez betetzeagatiko itzulketa.

Zaintza-dirulaguntzen 2. lerroan finantzatutako jarduerak gauzatzean, DNSH printzipioa bete beharko da uneoro. DNSH printzipioa edo etiketa klimatikoari buruzkoak betetzen ez badira, onuradunak ordura arte jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko ditu, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako moduan. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kargura ematen diren laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra arautzen da eta kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileen betebeharrak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dira.

16. artikulua.– Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak izateko arriskua prebenitzea.

1.– Balizko onuradunak hautatzeko prozesuan edo baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozesuetan parte hartzen duten pertsonen Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Erabakiaren bidez onartutako «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako eta interes-gatazkaren, finantzaketa bikoitzaren eta estatu-laguntzen eta ingurumen-kalte ez-esanguratsuaren arloko betebeharrak betetzeko neurrien plana» osorik eta erreserbarik gabe ezagutzen eta onartzen dutela adieraziko dute.

2.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, dirulaguntza emateko eskumena duen organoaren arduradunak, dirulaguntzaren oinarriak eta/edo deialdia idazten dituzten langileek, eskaerak ebaluatzen dituzten aditu eta batzordekideek, baita jarduera horietan Administrazioari laguntza eta aholkularitza ematen dioten erakunde pribatuetako pertsona fisiko guztiek ere, iruzurraren aurkako neurrien plana ezagutu eta onartu beharko dute.

3.– Aurreko apartatuetan aipatutako pertsonen Interes-gatazkarik Ez Izatearen Adierazpena ere beteko dute, oinarri hauetan II. eranskin gisa jasotako ereduari jarraikiz, hala egin behar dela ezartzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduko 61.3 artikuluan («Finantza Erregelamendua») eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23. artikuluan.

4.– Prozeduraren batean interes-gatazkak eragiteko arriskua dakarren kausaren batean dauden agintariek eta langileek ez dute esku hartuko dena delako prozedura horretan. Norbaitek uste

badu agian interes-gatazkaren bat dagoela, hierarkian gorago dagoenari jakinaraziko dio, idatziz; zerbitzu juridikoek txostena egingo dute, eta hartu beharreko erabakia hartuko da.

5.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, bere kabuz edo Estatuko Administrazioaren Kontu-har-tzailtza Nagusiarekin lankidetzan (III. maila), interes-gatazkak prebenitzeko, antzemateko eta zuzentzeko neurri egokiei buruzko auditoria espezifikoak egin ahalko ditu.

6.– Behin interes-gatazka bat hautematen denean, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren legezko arauen eta barne-erregelamenduen arabera neurriak hartuko dira. Era berean, edozein kasu-tan, interes-gatazkako egoera argitaratu beharko da gardentasun-printzipioa betetzeko.

17. artikulua.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan berariaz aurreikusi gabeko alderdi orori aplikatzekoak izango zaizkio honako hauetan bildutako aurreikuspenak: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa); Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003 Legea); 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua); eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde lagun-tzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen Dekretua (abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua).

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 16a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

 Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU	<div style="display: flex; justify-content: space-between;"> EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO </div> <div style="display: flex; justify-content: space-between; margin-top: 10px;"> <div style="width: 30%;"> <p>EKONOMIAREN JASANGARRITASUN SAILA</p> <p>Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza</p> </div> <div style="width: 30%;"> <p>GARAPEN, INGURUMEN ETA</p> </div> <div style="width: 30%;"> <p>DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</p> <p>Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental Dirección Patrimonio Natural y Cambio Climático</p> </div> </div>	 Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
--	--	--

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK. SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIA MEKANISMOAREN FUNTSEN KARGURA FINANTZATUTAKO JARDUKETAK, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN –SEEPAREN– ESPARRUAN

_____ jauna/andrea, adinez nagusia (NAN zenbakia: _____), (bere izenean/_____ pertsona fisiko/juridikoaren izenean, zeina _____ IFZ zenbakiarekin identifikatuta baitago), _____ helbide soziala duena, eta (laguntzaren onuraduna/azpikontratista) gisa diharduena, Osagaien zehaztutako helburuak lortzeko lizitazio-prozeduraren esparruan parte hartzen duena.

HAU ADIERAZTEN DU

1. ATALA: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren –SEEParen– zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoaren adierazpena

Lehenengoa. Ordezkatzen duen erakundeak arau juridiko, etiko eta moralak betetzearekin loturiko estandar zorrotzenen aldeko konpromisoa hartzen du, horri jarraikiz, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta antzemateko beharrezko neurriak hartzen ditu eta, hala badagokio, atzemandako ez-betetzeak dagozkien agintariei jakinarazten dizkie.

Bigarrena. SEEParen edukia kontuan hartuta, ordezkatzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta ingurumenean inpaktu negatibo adierazgarriak saihesteko («DNSH», ingelesezko do no significant harm» siglengatik) plan horren esparruan gauzatutako jarduketak gauzatzean.

Hirugarrena. Ordezkatzen duen erakundeak ez du finantzaketa bikoitzik, eta, hala badagokio, ez du Estatuko laguntzen araubidearekiko bateraezintasunerako arriskua existitzen delako ziurtasunik.



2. ATALA: Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH printzipioa)

Lehenengoa. Aurkeztutako eskabideak kondizio hauek betetzen ditu:

1.– Bertan gauzatzen diren jarduketek ez diete kalte nabarmenik eragiten beheko ingurumen-helburuei, ingurumenaren aldetik jasangarriak diren jarduera ekonomioen sailkapen-sistema bat (edo «taxonomia») ezarriz inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua araberara:

- a) Klima-aldaketa arintzea.
- b) Klima-aldaketara egokitzea.
- c) Baliabide hidrikoak eta itsas baliabideak jasangarritasunez erabiltzea eta babestea.
- d) Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
- e) Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.
- f) Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratzea.

2.– Jarduketak, hala badagokio, Osagaia neurtzeko eta azpineurria egiteko ezarritako ezaugarrietara eta baldintzetara egokitzen dira, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean islatzen dira.

3.– Proiektuan gauzatzen diren jarduerak aplikatzekoa den indarreko ingurumen-araudia beteko dute.

4.– Gauzatzen diren jarduerak ez daude baztertuta Planaren bitartez finantzatzeko aukeratik, honako printzipio hau aplikatzeari buruzko gida teknikoaren arabera: «Kalte nabarmenik ez eragitea», Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduari (2021/C58/01), Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren Proposamenari eta dagokion eranskinari jarraikiz.

5.– Gauzatzen diren jarduerak ez dute zuzeneko ondoriorik eragiten ingurumenean, ez eta lehen mailako zeharkako ondoriorik ere beren bizi-ziklo osoan; halakotzat jotzen dira jarduera gauzatu eta amaitu ondoren hezuramaitu daitezkeenak.



Bigarrena. Badaki eta onartzen du adierazpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dituela.

3. ATALA: Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)

Lehenengoa. Ezagutzen ditu honako hauek:

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBko finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua, «Interes-gatazkak» izenekoak, ezartzen duenez, «interes-gatazka egongo da funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan badago familia, afektu, kidesun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».

2.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distorsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzailerak guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.

3.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean», zehazki, egoera hauetako batean:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, erakunde edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego profesional berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

 Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU	<div style="text-align: center;">  EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO </div> <table border="0" style="width: 100%; text-align: center;"> <tr> <td style="width: 33%;"> EKONOMIAREN JASANGARRITASUN ETA SAILA Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza </td> <td style="width: 33%;"> GARAPEN, INGURUMEN DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental Dirección Patrimonio Natural y Cambio Climático </td> <td style="width: 33%;"></td> </tr> </table>	EKONOMIAREN JASANGARRITASUN ETA SAILA Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	GARAPEN, INGURUMEN DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental Dirección Patrimonio Natural y Cambio Climático		 Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia 
EKONOMIAREN JASANGARRITASUN ETA SAILA Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	GARAPEN, INGURUMEN DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental Dirección Patrimonio Natural y Cambio Climático				

- c) Aurreko apartatuan aipaturiko pertsonaren batekin adiskidetasun mina edo etsaitasun agerikoa izatea.
- d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritzea.
- e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izatea.

Bigarrena. Ez dago EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez dagoela, ezta ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta lizitazio-prozeduran eragina izateko arriskua dakarten abstenitzeko arrazoietako ezeinen mende.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen du kontratazio-organoari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera hori sortzen duen edo sor dezakeen edozein interes-gatazka edo abstenitzeko arrazoi.

Laugarrena. Konfidentzialtasunez tratatuko ditu prozedura horien esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 133. artikuluan ezarritako betebeharren esparruan.

Bosgarrena. Badaki Interes-gatazkarik Ez Dagoelako Adierazpen bat faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diela.

4. ATALA: Datuen lagapenari eta tratamenduari buruzko aitortpena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko jarduketak gauzatzeari dagokionez

Lehenengoa. Ezagutzen du aplikatu beharreko araudia, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluko hurrengo atalak, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena:

- 1.– 2. apartatuko d) letra: «Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan inbertsio-proiektuak eta erreformak egitera bideratutako neurriei dagozkien funtsen erabilera kontrolatu eta auditoria egiteko,

 Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU	<div style="text-align: center;">  </div> <div style="display: flex; justify-content: space-between;"> EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO </div> <div style="display: flex; justify-content: space-between; font-size: small;"> <div style="width: 30%;"> <p>EKONOMIAREN JASANGARRITASUN SAILA Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza</p> </div> <div style="width: 30%;"> <p>GARAPEN, INGURUMEN ETA</p> </div> <div style="width: 30%;"> <p>DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental Dirección Patrimonio Natural y Cambio Climático</p> </div> </div>	 Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
--	---	--

bilaketak egitea ahalbidetzen duen euskarri elektronikoko batean eta datu-base bakarrean biltzea datu kategoria harmonizatu hauek:

- a) Funtsen azken hartzailearen izena;
- b) Kontratistaren eta azpikontratistaren izena, funtsen azken hartzailea botere esleitzailera denean, kontratazio publikoaren arloko Batasuneko edo nazioko zuzenbidearen arabera;
- c) Funtsen hartzailearen edo kontratistaren titular errealen izen-abizenak eta jaiotegunak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 Zuzentarauaren (EB) 3. artikuluko 6. Puntuari jarraikiz (26):
- d) Suspertze- eta erresilientzia-planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoa zehaztuta eta nola Mekanismoaren esparruan hala Batasuneko beste funts batzuen esparruan ordaindutako funtsen zenbatekoa ere adierazita».

2.– 3. apartatua: «Artikulu honetako 2. apartatuko d) letran aipatutako datu pertsonalak Batzordeak eta estatu kideek soilik erabiliko dituzte, 15. artikuluko 2. apartatuak eta 23.eko 1. apartatuak aipatutako akordioak aplikatzeari lotutako funtsen erabileraren kontrol-prozedurei eta aurrekontu-kudeaketa onartzeari buruzko auditoria egiteko eta horretarako behar den denboran. Batzordeak kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, bat etorri EBFTren 319. artikuluekin, mekanismoa txostenak aurkeztearen (finantza-informazioaren esparruan) eta kontuak modu integratuan ematearen mende egongo da (Finantza Erregelamenduaren 247. artikulua), eta, bereziki eta modu berezian, kudeaketaren eta errendimenduaren urteko txostenean».

Bigarrena. Azaldutako esparru juridikoari jarraikiz, datuak lagatzeko eta tratatzeko irispidea duela adierazten du, aipatutako artikuluetan berariaz zerrendatutako helburuetarako.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)

 Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU	<div style="text-align: center;">  </div> <div style="display: flex; justify-content: space-between;"> EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO </div> <div style="display: flex; justify-content: space-between; font-size: small;"> <div style="width: 30%;"> EKONOMIAREN JASANGARRITASUN SAILA Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza </div> <div style="width: 30%;"> GARAPEN, INGURUMEN ETA </div> <div style="width: 30%;"> DEPARTAMENTO DE ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental Dirección Patrimonio Natural y Cambio Climático </div> </div>	 Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
--	---	--

II. ERANSKINA

KONPENTSATZEKO LAGUNTZEN LERROAN EMANDAKO LAGUNTZEN ZENBATEKOA KALKULATZEKO METODOLOGIA

1.– Erabilpenerako eta kudeaketarako egitaman ezarritako baso-erabileren muga onetsien irismena, honako egoera hauetan:

1. multzoa. Ez da onartzen N1.1, N1.2, N1.3, N5.1 eta T1.A1 kategoriei aplika dakiekeen baso-ustiapenik.

$$V1 = Va (1) - Vd (1) \quad Vd (1) = 0 \quad V1 = Va (1)$$

2. multzoa. Baso-lehengoratzea, elementu autoktonoetan oinarrituta, N1.4, N1.5, N.2, N.3, N.4, N5.2, B.6 eta T3 kategorietan aplikatzekoa.

$$V2 = Va (2) - Vd (2) \quad Vd (2) = 0 \quad V2 = Va (2)$$

3. multzoa. Hazkunde ertain edo luzeko espezie hostozabaletara mugatutako baso-ustiapena, B.1, B.2, B.3 eta B4.1 kategorietan aplikatzekoa.

$$V3 = Va (3) - Vd (3) \quad Va(3) > Vd(3) \quad V3 > 0$$

Bertan:

$V1, V2, V3$ = Onibarren kapitalizazioaren balioa egoera posible bakoitzerako.

Va = Mugen aurreko balioa.

Vd = Mugen ondorengo balioa.

2.– Diruz lagundu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko metodologia Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuan aurreikusitakoa da, honako zehaztapen hauekin:

a) Kapitalizazio-balioa:

Baso-ustiategietako errenta errealaren edo potentzialaren kapitalizazioa ekoizpen-egitura propioen arabera egingo da, urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuaren 13. artikulua c apartatuan agertzen den hurrengo adierazpena aplikatuz.

$$V = \left[\frac{R1}{(1+r2)^1} + \frac{R2}{(1+r2)^2} + \dots + \frac{Rk}{(1+r2)^k} \right] * \left(\frac{(1+r2)^k}{(1+r2)^k - 1} \right)$$

Bertan:

V = Kapitalizazio-balioa eurotan (€)

2022ko abenduaren 1a, osteguna

 Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU	<div style="text-align: center;">  </div> <div style="display: flex; justify-content: space-between;"> EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO </div> <div style="display: flex; justify-content: space-between; margin-top: 10px;"> <div style="width: 30%;"> <p>EKONOMIAREN JASANGARRITASUN SAILA</p> <p>Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza</p> </div> <div style="width: 30%;"> <p>GARAPEN, INGURUMEN ETA</p> <p>Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza</p> </div> <div style="width: 30%;"> <p>DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</p> <p>Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental Dirección Patrimonio Natural y Cambio Climático</p> </div> </div>	 Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
--	---	--

R_1, R_2, \dots, R_k = Ustiategiaren urteko errenta, 1. urtearen eta k urteko aldizkako iraupen-zikloen artean, eurotan (€)

r_2 = Kapitalizazio mota, urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

n = Urte kopurua, non $n \rightarrow \infty$

b) Gastuen kostua €/ha-tan izango da, Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren jardueramoduluetan jasotakoak.

c) Egurraren salmenta-balioa COSE Espainiako Basoginen Erakundearen Konfederazioaren webgunean horri buruz jasotakoaren arabera izango da, homogeneizazio-koefiziente hau kontuan hartuta: 360 m³/ha pinurako eta 200 m³/ha eukaliptorako.

3.– Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, intsinis pinua eta eukalipto hartuko dira ordeztu beharreko espezieen erreferentzia gisa, eta espezie hostotsu gisa, haritz gorria ziklo ertainerako eta pagoa ziklo luzerako. Intsinis pinuaren eta eukaliptoaren kasuan, bitarteko urtaro-kalitatea hartuko da (Landa Garapenerako Programan bildutako II. Kalitatea).

4.– Zuzenketa-faktore orokorra urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuaren 8. artikuluko horren 1.a.i apartatuko 1. eta 2. multzoei bakarrik aplikatuko zaie. Lokalizazio-faktore globala kalkulatzeko, 1,55 hartuko du balio gisa.

 Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU	<div style="display: flex; justify-content: space-between; align-items: center;"> <div style="text-align: center;"> EUSKO JAURLARITZA  </div> <div style="text-align: center;"> GOBIERNO VASCO </div> </div> <div style="display: flex; justify-content: space-between; margin-top: 10px;"> <div style="width: 30%;"> EKONOMIAREN JASANGARRITASUN SAILA <small>Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza</small> </div> <div style="width: 30%; text-align: center;"> GARAPEN, INGURUMEN ETA </div> <div style="width: 30%;"> DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE <small>Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental Dirección Patrimonio Natural y Cambio Climático</small> </div> </div>	 Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
--	---	--

III. ERANSKINA

ZAINTZA-DIRULAGUNTZEN LERROAN EMANDAKO LAGUNTZEN ZENBATEKOA KALKULATZEKO METODOLOGIA

600 €/ha ordainduko da jabeekiko kudeaketa-gastuak ordaintzeko, baita memoria idaztearen eta egin beharreko jarduketan ondoriozkoko gastuak ordaintzeko ere.

Jarduketak modulu hauetan sartu dira:

Basotzeko eta baso-eremuak sortzeko moduluak

Espezie-multzoa	Lehendiko landarediaren tratamendua	Modulua (€/ha)
Ziklo ertaina	Prestatu gabe	1800
	Eskuliburua	3000
	Mekanizatua	2600
Ziklo luzea	Prestatu gabe	2000
	Eskuliburua	3100
	Mekanizatua	2650

Itxituretarako eta babesetarako moduluak.

Jarduketa	Deskribapena	Modulua (€/ml)
Itxiturak	Itxitura altua ehiza-sarearekin 1,5 m	7,50
Jarduketa	Deskribapena	Modulua (€/unit.)
Babesak	1,80 m + hesola	3,90
	1,50 m + hesola	3,35
	1,20 m + hesola	2,30

 Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU	<div style="text-align: center;">  </div> <div style="display: flex; justify-content: space-between;"> EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO </div> <div style="display: flex; justify-content: space-between; font-size: small;"> <div style="width: 30%;"> EKONOMIAREN JASANGARRITASUN SAILA Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza </div> <div style="width: 30%;"> GARAPEN, INGURUMEN ETA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental Dirección Patrimonio Natural y Cambio Climático </div> </div>	 Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
--	---	--

Baso-pistak ezabatzeko modulua.

Jarduketa	Deskribapena	Modulua (€/ha)
Baso-pistak kentzea	Atzerakako hondeamakinak dituzten baso-pistak kentzea	2.500

Lurrak eskuratzeko modulua.

Jarduketa	Deskribapena	Lurrak eskuratzeko modulurako dirulaguntzen gehienekoak	
		Ehunekoa	€/ha
Lurrak eskuratzeta	Ingurumena lehengoratzeko lurrak eskuratzeta, erostea	75	2.500

 Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU	<div style="text-align: center;">  EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO </div> <div style="display: flex; justify-content: space-between; font-size: small;"> <div style="width: 30%;"> EKONOMIAREN JASANGARRITASUN SAILA Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza </div> <div style="width: 30%;"> GARAPEN, INGURUMEN ETA </div> <div style="width: 30%;"> DEPARTAMENTO DE ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental Dirección Patrimonio Natural y Cambio Climático </div> </div>	 Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
--	---	--

IV. ERANSKINA

KALTE NABARMENIK EZ EGITEKO PRINTZPIOAREN AUTOEBALUAZIOA

- **JARDUKETA/ERAGIKETA:**
- **ERAKUNDE KUDEATZAILEA:**
- **DATA:**

JARDUKETA/ERAGIKETAREN DESKRIBAPENA

KALTE NABARMENIK EZ EGITEKO PRINTZPIOAREN AUTOEBALUAZIO-ZERRENDA

1.– 1. zatia: Kudeaketa-organoak sei ingurumen-helburuak iragazi behar ditu, ebaluazio sakon bat behar dutenak identifikatzeko. Adierazi, neurri/proiektu/azpiproiekturako, taxonomia-erregelamenduaren 17. artikulua definitzen dituen ingurumen-helburu hauetatik zeinek («ingurumen-helburuei kalte nabarmena») eskatzen duen ebaluazio sakon bat, dagokion neurri/proiektu/azpiproiektuaren kalte nabarmenik ez egiteko printzipioaren arabera:

Adierazi ingurumen-helburu hauetatik zeinek eskatzen duen neurriaren kalte nabarmenik ez egiteko printzipioaren arabera ebaluazio sakon bat.	Bai	Ez	«Ez» hautatu baduzu, azaldu arrazoiak
Klima-aldaketa arintzea ⁽¹⁾			
Klima-aldaketara egokitzea ⁽²⁾			
Ur eta itsas baliabideak modu jasangarrian erabiltzea eta babestea ⁽³⁾			
Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne ⁽⁴⁾			
Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea ⁽⁵⁾			
Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratzea ⁽⁶⁾			
<p>⁽¹⁾ Jarduera batek klima-aldaketa arintzeari kalte nabarmena eragiten diola joko da baldin eta berotegi-efektuko gasen (BEG) emisio handiak eragiten baditu.</p> <p>⁽²⁾ Jarduera batek klima-aldaketara egokitzeari kalte nabarmena eragiten diola joko da baldin eta gaur egungo klima-baldintzen eta etorkizunean aurreikusitako kontrako eraginak handitzea eragiten badu jardueran edo pertsonengan, naturan edo aktiboetan.</p> <p>⁽³⁾ Jarduera batek ur eta itsasoko baliabideak modu jasangarrian erabiltzea eta babesteari kalte nabarmena eragiten diola joko da baldin eta ur-masen egoera onaren edo potentzial ekologiko onaren (azalekoak eta lurpekoak barne) eta itsasoko uren egoera ekologiko onaren kalterako bada.</p> <p>⁽⁴⁾ Jarduera batek ekonomia zirkularri (hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne) kalte nabarmena eragiten diola joko da baldin eta materialen erabileran edo baliabide naturalen zuzeneko edo zeharkako erabileran eraginkortasun-falta handiak eragiten baditu; baldin eta hondakinen sorrera, errausketa edo deuseztatpena nabarmen areagotzen badu; edo baldin eta hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumenari epe luzera kalte nabarmena eragin badiezaioke.</p> <p>⁽⁵⁾ Jarduera batek atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzeari eta kontrolatzeari kalte nabarmena eragiten diola joko da baldin eta atmosfera, uretara edo lurzorura kutsatzailen emisioak nabarmen handitzea eragiten badu.</p> <p>⁽⁶⁾ Jarduera batek biodibertsitatea eta ekosistemak babesteari eta lehengoratzeari kalte nabarmena eragiten diola joko da baldin eta neurri handi batean ekosistemen baldintza onen eta erresilientziaren kalterako denean, edo habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeraren kalterako denean –batez ere Batasunerako interesgarriak direnak–.</p>			

 <p>Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU</p>	<p style="text-align: center;">EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO</p> <p>EKONOMIAREN JASANGARRITASUN SAILA GARAPEN, INGURUMEN Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza</p> <p>DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental Dirección Patrimonio Natural y Cambio Climático</p>	 <p>Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia</p>
---	--	---

2.– 2. zatia: Kudeaketa-organoak ebaluazio sakon bat egin behar du, hala eskatzen duten ingurumen-helburuen kalte nabarmenik ez egiteko printzipioaren arabera. Neurri/proiektu/azpiproiektu bakoitzerako, erantzun galdera hauei 1. zatian ebaluazio sakon bat behar zutela adierazi zenuen ingurumen-helburu horietarako:

Galderak	Ez	Funtsezko justifikazioa
<i>Klima-aldaketa arintzea:</i> Uste da neurriak berotegi-efektuko gas asko isuriko dituela?		
<i>Egokitzapena klima-aldaketara:</i> Espero al da neurriak gaur egungo klima-baldintzen eta etorkizunean aurreikusitakoen kontrako eraginak handitzea gailuetan, edo pertsonengan, naturan edo aktiboetan?		
Ur eta itsas baliabideak modu jasangarrian erabiltzea eta babestea: Uste al da neurria kaltegarria izatea: (i) ur-masen egoera onerako edo potentzial ekologiko onerako, azalekoak eta lurpekoak barne; edo (ii) itsas uren ingurumen-egoera onerako?		
Ekonomia zirkularrerako trantsizioa, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne: Uste al da neurriak (i) hondakinen sorrera, errausketa edo deuseztapena nabarmen handituko duela, birziklatu ezin diren hondakin arriskutsuen errausketa izan ezik; edo (ii) bizi-zikloaren edozein fasetan baliabide naturalen zuzeneko edo zeharkako erabileran eraginkortasun falta handiak sortuko dituela, neurri egokiekin minimizatuko ez direnak; edo (iii) ekonomia zirkularrari dagokionez, kalte esanguratsua eta epe luzerakoa eragingo duela ingurumenerako?		
<i>Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola:</i> Espero al da neurriak aire-ratutako edo uretara edo lurzorura isuritako kutsatzaileak nabarmen handitzea?		
Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea: Uste al da neurriak (i) ekosistemen kondizio onen eta erresilientziaren kalterako izango dela neurri handi batean; edo (ii) habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeraren kalterako izango dela, bereziki Batasunerako interesgarriak diren kalterako?		